



Adolfo Morais Ezquerro, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, 2016ko urriaren 11ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egiten duen aginduan, EHAA 198 zk, bere 12. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

EBATZI DU

Lehenengoa.- Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak ematea, guztira 173.675 euro. Onuradun bakoitzari emandako diru-laguntza emandakoen zerrendan jasota adieraztea.

Bigarrena.- Ukatutakoen zerrendan jasotakoei laguntzak ukatzea.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza, sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 18an

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA